

## Aurka egiteko eskubidea

### **Zertan datza?**

Aldez aurretiko onespena beharrezko ez denean ere, herritarrok eskubidea daukagu datuak tratatzearen aurka egiteko, gure egoera pertsonal zehatzari buruzko arrazoi oinarrikoak eta legitimoak baldin badaude.

Aldez aurretiko onespena ez da beharrezkoa honakoetan:

- Hori xedatzen duen lege bat badago. Adibidez, onspena ez da beharrezkoa datu pertsonalak biltzen badira administrazio publikoek, euren eskuduntzen eremuan, beren funtzioak bete ditzaten, ez eta negozioko kontratu edo harremana badago (lan edo administrazio mailakoa) eta horiek mantentzeko edo betetzeko beharrezkoak badira ere datu horiek.
- Tratamenduaren helburua interesdunaren hil edo biziko interesa babestea bada, besteak beste, prebentzioa, diagnostiko eta tratamendu medikoak, laguntza medikoa ematea edo osasun-zerbitzua kudeatzea, betiere datuen tratamendu hori sekretu profesionalari lotuta dagoen osasuneko profesional batek egiten badu edo modu berean sekretua gordetzera behartuta dagoen beste pertsona batek.
- Jendearen eskura dauden iturrietan badaude datuak eta datu horiek tratatzea beharrezkoa bada fitxategiaren arduradunak edo datuon hartzaileak lortu nahi duen interes legitimo baterako, betiere interesdunaren oinarriko eskubide eta libertateak urratu gabe.

Era berean, gure baimena derrigorrezkoa ez denean ere, onspena ez emateko eskubidea dugu.

### **Aplikatu beharreko araudia**

- Lege Organikoa, abenduaren 13koa, Datu Pertsonalak Babesteari buruzkoa, [6.4](#) eta [17. artikulua](#)
- 2/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Datu Pertsonalen Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzkoa, [8. artikulua](#)

### **Administrazio edo erakunde publiko baten aurrean eskubidea erabiltzea Aurka egiteko eskubidea erabiltzeko baldintzak**

- Aurka egiteko eskubidea erabiltzea nahitaez norberak egin beharrekoa da eta horregatik, interesdunek zuzenean gauzatu beharrekoa, fitxategien arduradun/titular bakoitzaren aurrean.
- Fitxategi baten dauden datu pertsonalak tratatzearen aurkako eskubidea, datuak zuzentzeko edo osatzeko xedez zure datuak tratatzeko aginpidea duen Administrazioaren fitxategiaren arduradunaren aurrean egiten da.
- Fitxategiaren arduradunaren helbidea zein den ez badakizu, Datuak Babesteko Euskal Bulegora jo dezakezu eta informazio hori eskatu 945 016230 telefonoan, [avpd@avpd.es](mailto:avpd@avpd.es) posta elektronikoa, edo [www.avpd.es](http://www.avpd.es) web orriaren bitartez

- Epeak
- Arduradunak eskaeragileari erantzun egin beharko dio, eskabidea jasotzen den egunetik **gehienez ere 10 eguneko epean**
- Epe horretan aurka egiteko eskabideari berariaz erantzun ezean, eskaera ukatutzat eman beharko da.
- Aurka egiteko eskubidearen eskabidea onetsi egiten bada, arduradunak **baztertu egin beharko ditu dago(z)kion tratamendua(k), eskabidea jasotzen den egunetik hamar eguneko epean.**

Nombre de archivo: Documento1  
Directorio:  
Plantilla: C:\Documents and Settings\EJ00873T\Datos de programa\Microsoft\Plantillas\Normal.dot  
Título:  
Asunto:  
Autor: EJ00873T  
Palabras clave:  
Comentarios:  
Fecha de creación: 30/03/2010 10:47:00  
Cambio número: 1  
Guardado el:  
Guardado por:  
Tiempo de edición: 3 minutos  
Impreso el: 30/03/2010 10:51:00  
Última impresión completa  
Número de páginas: 2  
Número de palabras: 519 (aprox.)  
Número de caracteres: 2.857 (aprox.)